

Astelehena, 2010/01/11

Kronika.net
Argazkiak
Elkarrizketak
Jasota Bezala
Inkesta eta Eztabaida
Zerbitzu eta Helbideak
Agenda
Kronika Bereziak
Dokumentuak
Publizitatea
Egin Bazkide
AURREKO EDIZIOAK Aukeratu nahi duzun data
2010
urtarrila
10
▷ BILATU
<input type="text" value="Kronika Zaharrak"/>

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



KRONIKA.NET
ASTIGARRAGA

Realak irekiko du Astigarragako txotx denboraldia, asteazkenean Petritegin

XVIIgarren Sagardo Berriaren Eguna izango da asteazkenean Astigarragan, eta lehenego kupela 13:45etan irekiko da.
2010/01/10 - Igandea

egun gutxi falta dira, Txotx denboraldia irekitzeko. Urteroko moduan, aurten ere aurreneko kupela Astigarragan irekiko dute. 100garren urteurrena dela eta, Realak izango da, Gure Sagardo Berria oihu egin, eta hasiera ofiziala emango diona denboraldi berriari.

Prentsaurrekoa eguerdian

Sagardo Berriaren eguna prentsaurrekoarekin hasiko da aurten ere. Eguerdiko 12:00etan izango da, eta bertan, zehatz-mehatz azalduko dituzte 2009ko uztarren ezaugarri nagusiak, eta sagarra eta sagardo berriaren nortasuna.

Segidan sagarrondoak landatuko dute

Prentsaurrearen ostean, Sagardo Berriaren Eguneko protagonistek, hau da, Realeko kideek sagarrondo bat landatuko dute, ekitaldi sinboliko gisa. Eguerdiko 13:00etan izango da, Sagardoetxe aurrean.

Bazkalaurretik txotx irekiera

Bazkaldu aurretik, Sagardoetxetik Petritegira joango dira. Bertan, 13:45etan, irekiko dute aurreneko kupela. Ekitaldiak irekiko du 2010eko Astigarragako Txotx denboraldia.

Zabaldu!

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali

BILATZAILEA
Idatzi bilaketa hitza(k)

▷ **BILATU**

ARGAZKIAK



▷ **IKUSI**

Momentu honetan inkestarik ez dago

▷ **Eztabaida Lekua**



GAURKO KRONIKA

